

Hizkuntza-ekologia. Ekologia biologia eta hizkuntza-ekologiaren arteko joan-etorriak

Belen Uranga

Soziolinguistika Klusterra

b.uranga@soziolinguistika.org

Sarrera-data: 2011-07-20 | Onartze-data: 2011-10-15

Laburpena. Artikulu honen helburua ekologia terminoa hizkuntzaren arloan erabiltzearen inguruko hainbat arrazoi azaltzea da. Terminoz gain kontzeptua bere osotasunean erabiltzeko sakoneko arrazoiak egon badaudela azaleratzen saiatuko gara, moda-kontua izatetik harago. Helburu horrekin ekologia terminoaren inguruko azalpen laburretik abiatuko gara, ekologiatik ekologismorako jauzia nola egiten den erakusteko. Hortik, hizkuntza-ekologiarentzat baliagarriak izan daitezkeen hainbat analogia ikusiko dira bai kontzeptuen aldetik, bai aztergaien aldetik eta baita erantzuteko proposatzen diren moduengatik ere. • *Hitz-gakoak:* Ekologia, hizkuntza-ekologia, ekosistema, habitata, metafora biologikoa.

Abstract. Connection between biological ecology and language ecology. This paper sets out to explain a number of reasons why the term ecology is used in the language sphere. We will be endeavouring to show that there are certainly deep reasons for using not only the term but also the concept in its entirety, beyond it being a mere question of fashion. With this aim in mind, we will be starting with a brief explanation of the term ecology to show how to make the leap from ecology to ecologism. So, many analogies that could be valid for language ecology will be seen, not only with respect to concepts, but also with respect to the subjects being studied as well as the ways being put forward for dealing with them. • *Key words:* ecology, language ecology, ecosystem, habitat, biological metaphor.

SARRERA

Artikulu honen helburua ekologia terminoa hizkuntzaren arloan erabiltzearen inguruko hainbat arrazoi azaltzea da, hizkuntza-ekologiaren inguruko hainbat ideia ematea, alegia. Terminoz gain kontzeptua bere osotasunean erabiltzeko sakoneko arrazoiak egon badaudela azaleratzen saiatuko gara, moda-kontua izatetik harago.

Gaur egungo gizartean ikuspegi ekologikoak arrakasta ideologiko nabarmena irabazi du; merkatuak egiten duen erabilera ikusi besterik ez dago arrakasta horren neurriaz ohartzeko, baina garrantzia handiagoa du jakiteak goi mailako erantzukizunak dituztenek ere, gero eta zailagoa dutela ikuspegi ekologikoa saihestea; nolabait esateko, ikuspegi ekologikoak eragina du mundu—mailako analisi eta praxian, baina baita ere, norbanakoaren pentsamenduan eta praktketan. Horrek ez du esan nahi, jakina, arrakasta ideologikoak praktketan isla zuzena duenik; askok esango lukete urrun, oso urrun gaudela horretatik.

Nolanahi ere, sentiberatze horiek oso urte gutxitan gertaturiko aldaketak dira, nahiz eta ez duten arazoaren muinera jo, izan ere, benetako aldaketek maila guztietako ondorioak dakartzate, eta hor zailtasun handiak sortzen direla ezin ukatuzko kontua da. Hala ere, horren kontziente izateak ardurak maila guztietan har daitezen lan egiten jarraitu behar denaren zalantzarik ez dago. Beraz, zailtasunak zailtasun, ikuspegi ekologikoaren aldeko jarrera eta portaerak sustatzeko ekimenek jarraitzen dute.

Ekologiaren gaiak, eta horren haritik hizkuntza-ekologiaren inguruan, erreferentziatzeko lanak, ikerketak, proposamenak eta bibliografia-lanak gero eta ugariagoak dira. Ez dugu hemen horren guztiaren irakurketa egiteko modurik, baina eredugarri izan daitezkeen hainbat dokumentu eskura jarriko ditugu, eta aditu gutxi batzuen ekarpenei erreferentzi txikiak eginez hemen aurkeztu nahi dugun ideien bilduma osatuko dugu.

David Crystalen hitzok ekarri nahi genituzke, ekologiak izandako arrakastaren inguruan hizkuntzalaritzak zeregin handia duenaren ideia sendotzeko.

Badirudi dauden 6.000 hizkuntzetatik 3.000 inguru desagertuko direla mende honetan. Gutxi gorabehera bi astean behin hizkuntza bat hiltzea dakar horrek; historia ezagunean inoiz izan den erritmorik biziena. Oraindik ere, jendea ez da horretaz jabetzen, ez behintzat mugimendu ekologistarekin lotutako galtze biologikoaz jabetzen den bezala. Jende gehienak oraindik ez du hizkuntza-kontzientziarik [Crystal 2007: 62].

***Gaur egungo
gizartean
ikuspegi
ekologikoak
arrakasta
ideologiko
nabarmena
irabazi du;
merkatuak egiten
duen erabilera
ikusitako ez
dago arrakasta
horren neurriaz
ohartzeko, baina
garrantzia
handiagoa du
jakiteak goi
mailako
erantzukizunak
dituztenek ere,
gero eta zailagoa
dutela ikuspegi
ekologikoa
saihestea.***

**Ernst Haeckel
(1837-1919)
zientzialari
alemaniarri zor
zaio ekologia
terminoaren
erabilera lehen
aldiz, 1869.
urtean
Morphologie
générale des
organismes
liburuan
proposatutakoa.
Haeckel
(biologoa,
zoologoa eta
medikua)
Darwinen
jarraitzaile
sutsua izan zen,
eta eboluzionis-
moaren
hedapenean
zeresan handia
izan zuenez, bi
bideak neurri
batean lotuta
geratu ziren.**

Ekologiak izan duen arrakasta sozial erlatibo horretatik abiatuko gara bi eredu arteko eraketak egiteko. Esan bezala, gure irudipena da hizkuntza-ekologiaren gaia gure gizartean nahiko berria dela, eta komenigarria dela marko orokorraz aritzea.

- Hizkuntza-ekologia azterketarako marko bat da, fenomeno zehatz bat ulergarri egiteko nolabaiteko eredu bat. Hizkuntzen ukipen-egoera aztertu, arazoak detektatu eta ekintzarako alternatiba posibleak eskaini nahi dituen.
- Eremu berri xamarra da, garatzen ari dena, baina jarreretakako, eta ekintzetarako norabide bat proposa dezakeena.

Hizkuntza-ekologia kontzeptua ekologiaren kontzeptutik eratorritako eredu da, eta badu alboko onura bat: ekologiaren kontzeptualizazio osoa berraztertzeke aukera ere eskaintzen du. Beraz, hurbilketa honetan, nahi dena honakoa da:

Ekologia eta hizkuntza-ekologiaren arteko paralelismoetatik abiatuz hizkuntzaren eta hizkuntzen arloko gaiari ikuspegi berri eta bideragarria eskaintzea.

Abiatuko gara ekologia terminoaz beraz, eta saiatuko gara bi esparruak hurbiltzen eta urruntzen dituzten ideiak identifikatzen.

1. EKOLOGIA TERMINOAZ ETA KONTZEPTUAREN INGURUAN

Ekologiaren inguruko hainbat definizio aurki daitezke, baina, modu orokorrean honako hau gailentzen da:

Ekologia izaki bizidunen arteko harremanak eta euren inguruarekin dituztenak aztertzen dituen zientzia da.

Ernst Haeckel (1837-1919) zientzialari alemaniarri zor zaio ekologia terminoaren erabilera lehen aldiz, 1869. urtean *Morphologie générale des organismes* liburuan proposatutakoa. Haeckel (biologoa, zoologoa eta medikua) Darwinen jarraitzaile sutsua izan zen, eta eboluzionismoaren hedapenean zeresan handia izan zuenez, bi bideak neurri batean lotuta geratu ziren. *Ekologia* terminoa grezierako *oikos* (etxea) eta *logos* (jakintza) hitzak elkarketatik sortu zen. Beraz,

Ekologia etxearen inguruko jakintza da, lurra izaki bizidunen etxea dela jakinik.

Ekologia zientzia biologiaren adar bat da, izaki bizidunen elkarre-
raginak eta horiek ingurumenarekin dituztenak aztertzen dituena. Ho-
rrela bada, berariaz hartzen dira kontuan ingurumenaren ezaugarriak.

Ingurunearen azterketak oso goi-mailako antolaketak aztertzea da-
kar, hau da, taldeak, komunitateak, ekosistemak eta biosfera hartzen
ditu kontuan. Eta horrenbestez, diziplinartekotasuna nagusitzen da be-
reziki, geologia, metereologia, geografia, fisika, kimika eta matematika-
arloak ere elkar eragiten baitute. Zentzu zabalean esan daiteke existen-
tziaren, izatearen baldintzen zientzia dela ekologia.

1.1 Ekologiaren aztergaien artean daude aniztasuna, banaketa, hedapena eta ingurune komunarekiko harremanak

Ekologiaren aztergaiak izendatzerakoan bioaniztasunaren deskribapena
izan ohi da abiapuntua; aniztasun horren jatorria, espezien ugaritasuna,
hedatze-prozesuak eta hedatze horien ondorioz gertatzen diren harre-
man desberdinen egokitze-prozesu edo moldatzeak. Gainera, bioaniz-
tasun hori esparru geografiko edo fisiko batean kokatzen denez, ingu-
rune horrekiko harremanak ere aztertu eta azalduko ditu. Esan gabe
doa, hori guztia mundu-mailako azterketan zein eremu fisiko hurbile-
koetan begiratu behar dela.

1.2 Ekosistema kontzeptua

Ekologiaren aztergaien artean ekosistema kontzeptua gailentzen da; hau
da, eremu zehatzetako ekosistemetan jarri ohi du arreta ekologiak lehen
maila batean. Ondoren ekosistemen arteko harremanez ere aritzeko.

- Ekosistema bat bizitzarako ezinbesteko oreka gordetzen duen animalia eta landareen arteko harreman-sarea da.
- Sistema horretan espezieak eta ingurunea elkarreragineko prozesu di-
namiko batean nahasirik daude. [...] Ekosistemaren batean elkarreraginak
ez dira estatikoak; aitzitik, desoreka eta erregulazio etengabeen mende
daude. Horren ondorioz, sistemak homeostasirako ahalmena dauka, eta,
horri eskerrak, bere egitura eta funtzioari eusten dio hein batean, kanpoko
eta garapenerako nahastei aurre eginez [Onaindia 2010:34].

Ekosistemetan oinarritzearen ondorio zuzena da tradiziozko teorien
inguruko aldaketa ekartzea, dualismotik ihes egitea, eta kausalitate

**Ekologiaren
aztergaien artean
ekosistema
kontzeptua
gailentzen da;
hau da, eremu
zehatzetako
ekosistemetan
jarri ohi du
arreta ekologiak
lehen maila
batean. Ondoren
ekosistemen
arteko
harremanez ere
aritzeko.**

Errekurtsoen kontsumoa, sortutako kutsadura eta sistema ekonomikoaren bilakaera kontuan hartuz, erakusten dute nagusitu den garapen eredua ez dela jasangarria [Urteaga 2010: 28 or].

linealak alboratzea. Beraz, gertaeren arrazoiak eta azalpenak modu konplexuan aztertu behar dira, sistema estatikoak izan ordez, dinamikoak direlako. Gertaerak ulertzeko ez da nahikoa zientzia naturalen jakintza baliatzea, ezinbestekoa da giza zientzien ekarpena ere aztertzea, aurrerago ikusiko dugun modura. Adibidez, esan dezagun ekosistema batean zuzendu ezin den desoreka-maila gertatzen bada ondorio zuzenak izan ditzakeela giza taldeen antolakuntzan, eta, beraz, soziologia edo psikologia bezalako zientzien ekarpena ere kontuan hartu beharko da giza talde horren antolakuntza berriak ulertu edo azaltzeko.

1.3 Aniztasunaren galera-arriskua hazkundearen neurrigabekeria

The Limits of Growth 1972. urtean Erromako Klubak argitaraturiko txostenak (Meadows txostena deiturikoa) ekologiaren historian mugarri bat izan zen. Txosten horrek mundu-mailako ingurugiroari lotzen zaion ikerketa sistematikoa plazaratu zuen eta alarma guztiak piztu zituen: modu sistematikoan egindako prospekzio-lan garrantzizko horren ondoren lurraren etorkizunaz hainbat garapen-eredu planteatu ziren, etorkizuneko arriskuak oso latzak izan zitezkeela agerian jarritz, gauzak bere horretan joaten utzi ezker. Harrez gero, hazkunde ekonomikoaren eredua zalantzan jarri zen eta “Hazkunde eza” lema ere plazaratu zen.

Txosten horrek agerian jarri zuen honako ideia hau ere:

Errekurtsoen kontsumoa, sortutako kutsadura eta sistema ekonomikoaren bilakaera kontuan hartuz, erakusten dute nagusitu den garapen eredua ez dela jasangarria [Urteaga 2010: 28 or.].

Harrez geroztik, hainbat nazioarteko bilkura garrantzizko egin dira¹. Horien artean, 1972. urtean Stockholm-en buruturiko gailurak berebiziko sona lortu zuen. Hura izan zen Nazio Batuen Erakundeak (NBE) gizakiari eta bere ingurugiroari buruz antolatu zuen lehen mundu mailako gailurra.

Testuinguru horretan berariazko garrantzia izan zuen NBEarentzat 1987. urtean egindako *Brundtland Txostenak*. Izan ere, iraunkortasuna (jasangarritasuna) kontzeptua eta praxia abian jartzeko beharra plazaratu zuen. Txosten horretan iraunkortasuna honela definitzen du:

Garapen jasangarria uneko beharrak asetzen dituen garapena da, etorkizuneko belaunaldiei beren beharrak asetzeko gaitasuna arriskuan jarri gabe².

Harrez geroztik, bere zailtasun guztiekin izanik ere, garapen ekonomiko neurri gabearen arriskuaren ideia mundu-mailan zabaltzen joan zen eta, ondorioz, erantzuteko beharraren kontzientzia geroz eta hedatuago dago. Eraginkortasunaren aldetik zalantzak ere handiak dira, nazioarteko eliteek eta gizarteak oro har sentsibilizazio-maila goragokoa izan arren, ez direlako garapen jasagarria gauza dadin behar diren emaitzak lortu, hainbat egitasmo behin eta berriz abian jarri arren. Eta kezkatzeko datua da gero eta arrisku-maila handiagoa dela.

Xamarrek dioenez

Gaur egun, XXI. mendearen hasieran, ikertzaile guztiak ados daude: seigarren suntsipenaren atarian dago mundua. Baina oraingoan arrazoa ezagutzen da: gizakia. [...] Hurrengo ehun urteetan landare eta animalien erdia desagertzen bidean izan daiteke [Xamar 2011: 29].

Ildo beretik Miren Onaindiak honela dio:

Europako Ingurumen Agentziaren azken datuek diote Europan 15.500 espezieetik gora (38.000 aztertu dira) galzorian daudela. [...] Habitat naturalak galtzen ari dira leku guztietan: Europako basoen %1-3 besterik ez da berezkoa, inpakturik jaso gabea (EEA, 2006). Gainera, sistema naturalak gero eta gehiago ari dira homogeneizatzen eta espezie ubikistak (weedy species) ari dira gailentzen espezie espezialisten gainetik [...] egoera horrekin loturik, begien bistakoa da Europako ekosistemen zerbitzuen degradazioa. Horren seinale dira, besteak beste, uholdeen maiztasuna eta larritasuna areagotzea (ibai arroen deforestazioak eta ibaien bideratzeak larriagotu egiten du gainera arazoa), lurzoruen emankortasuna galtzea, polinizatzaileen populazioen aldian behingo kolapsoak ... [Onaindia 2010: 38].

Aldi berean interesgarria da kontuan hartzea horrek guztiak giza-kiaren antolakuntzan ere duen inpaktua, esan nahi baita egungo hazkunde-ereduak munduko gizakien arteko bereizketa neurri gabea hazten ari dela bidegabeki:

Munduko biztanleriaren %20 inoiz ez bezalako ongizate materialaz gozaten ari da, eta, aldiz, gutxienez beste %20 erabateko pobrezia-egoeran bizi da. Hain zuzen, aberatsen %20k pobreenen %20k baino 60 aldiz gehiago irabazten du eta arrakala hori bikoiztu egin da azken 30 urteotan [Onaindia 2010:45].

Aurreko datu hori ekarri nahi izan dugu bioaniztasunaren galerak giza garapenean ere eragin zuzena duela frogatu dela gogoratzeko.

**Munduko
biztanleriaren
%20 inoiz ez
bezalako ongizate
materialaz
gozaten ari da,
eta, aldiz,
gutxienez beste
%20 erabateko
pobrezia-egoeran
bizi da. Hain
zuzen, aberatsen
%20k pobreenen
%20k baino 60
aldiz gehiago
irabazten du eta
arrakala hori
bikoiztu egin da
azken 30
urteotan
[Onaindia
2010:45].**

Ekologiaren filosofian eta praxian dauden zailtasunak hizkuntza-ekologiaren baitan ere sumatzen dira. Sarri, zailtasun horiek antzeko izaera dute, galera-arriskua, desoreka eta degradazioaren ondoriozko giza garapenerako kalteak bi esparrutan ikusten dira. Baita arazoari erantzuteko jarrerak eta jokamoldeak aldatzeko zailtasunak ere.

Izan ere, gertakizun horiek guztiak gizakiaren eraginaren ondorioz gertaturikoak dira, eta gizakiak berak pairatzen ditu ondorioak. Eta oso denbora gutxian gertatzen ari den kontua da gainera. Aiestaranek era-soaren denbora-tarte txikia irudikatzeko ezagutzen den kosmosaren historiaren denboraren paralelismoa egin du, honela:

“Egutegi kosmologiko horren arabera, gizakiak 50 minutu ditu jatorritik, eta soilik, 6-4 segundotan jarri du arriskuan bere etorkizuna Lurraren gainean [Aiestaran 2010: 67].

Ataltxo honi amaiera emateko esan dezagun Urteagarekin batera:

Agerikoa da garapen iraunkorrak arrakasta mediatiko zein politiko itzela ezagutu badu ere, zailtasunak daudela hitzetatik ekintzetara igarotzeko [Urteaga 2010: 32].

Orain arteko argudioetan azpimarratu izan nahi den ideia honakoa da: Ekologiaren filosofian eta praxian dauden zailtasunak hizkuntza-ekologiaren baitan ere sumatzen dira. Sarri, zailtasun horiek antzeko izaera dute, galera-arriskua, desoreka eta degradazioaren ondoriozko giza garapenerako kalteak bi esparrutan ikusten dira. Baita arazoari erantzuteko jarrerak eta jokamoldeak aldatzeko zailtasunak ere. Baina horrek, lehen esan bezala, ez du oztopatzen ereduaren etengabeko berrikuntzak planteatzea, erantzunak bilatzen jarraitzea, ikuspegi ekologikoak berak dinamikotasun hori bultzatzen baitu.

1.4 Ekologiaren erantzun beharra

Kontserbazio estrategiak martxan jarri beharra aldarrikatzen hasi ziren, behin krisia hauteman eta berehala; ekologiak hartu zuen horren lidergoa Urteagak eta Onaindiak dioten moduan:

Zientzia ekologikoa ez da jada ingurugiro krisiaren larritasuna deskribatzera eta azaltzera mugatzen, baizik eta erronka horri erantzuteko proposamenak egiten ditu [Urteaga: 2010: 24].

Gizakiak sortu edo eragindako inguruneak ere (baratzak, natura erreserbak, etab) ikertzen dituzte ekologoek, baina baita giza eraginak naturan dituen ondorioak ere; kutsadura eta berotze globala, besteak beste [Onaindia 2010].

Mundua hasi da onartzen gaur egun nagusi diren ekonomia-garapenerako ereduak ezin direla mundu osora hedatu, eta hortik sortu da, hein batean, iraunkortasunaren premia [Onaindia 2010: 44].

Esan ohi da Einar Haugen (1906, 1994) izan zela ekologia terminoa hizkuntzalaritzara ekarri zuen lehen hizkuntzalaria 1972. urtean argitaratutako *The Ecology of Language* liburuan. Egileak honela definitu zuen hizkuntzaren ekologia:

Hizkuntza-ekologia hizkuntza orok bere ingurunearekin dituen elkar eraginen azterketa da. [Haugen 1972: 325].

Urteagak aipatzen dituen talde-kohesioa eta elkartasuna kontzeptua ere funtsezko elementuak dira biziraupenerako [Urteaga 2010].

Hurbilketa modu berri honen baitan, Ignazio Aiestaranek honako hau baieztatzen du:

...Klima-aldaketa bezalako arazo globaletan konponbidea ez zaigu zeruetatik eroriko, ezta goiko agintariengandik ere. Hala ekonomian, nola bizi-kalitatean, ez dago panazearik, urrearen eta mirarizko sendagaiaren garaia igaro delako. Bakoitzak bere mailan ardura-mota bat du ahalegin iraunkor horretan, bai bere ezagutzaren sisteman, bai bere erantzukizunaren sarean [Aiestaran 2010: 76].

Azkenik, aipatu ditzagun beste esparru bateko arrazoiak eta argudioak. Ekosistemen zaintzearen aldeko argudioak ez dira soilik moralak, giza garapenean duten eraginak kontuan hartuta, argudio ekonomikoak ere kontuan hartzen hasi beharra dago Urteagak aipatzen duen modura:

Joera hori justifikatzeko argudio ekonomiko zein moralak erabiltzen dira [Urteaga 2010: 25 or].

Atal honi amaiera emateko gogora dezagun ekologia ez dela tradiziozko bizitzaren zientzietara mugatu, arazo filosofikoa eta linguistikoa ere badelako, besteak beste. Ildo horretan, azken hamarkadetan ekofilosofia eta ekolinguistika ere garatzen ari dira *GAIAREN³ egoera tamalgarrari erantzuteko alternatiba modura* [Bang 2007:171-172].

2. HIZKUNTZA-EKOLOGIA

I

Esan ohi da Einar Haugen (1906, 1994) izan zela ekologia terminoa hizkuntzalaritzara ekarri zuen lehen hizkuntzalaria 1972. urtean argitaratutako *The Ecology of Language* liburuan. Egileak honela definitu zuen hizkuntzaren ekologia:

Hizkuntza-ekologia hizkuntza orok bere ingurunearekin dituen elkar eraginen azterketa da. [Haugen 1972: 325]⁴.

Ikus daitekeenez, Haeckel-ek mende bat lehenago emandako definizio ber-bera proposatu zuen Haugen-ek hizkuntzalaritza-arloan aplikatzeko. Eta diziplina artekotasuna eta modu sistemikoan aztertu beharra abiapuntutik bertatik planteatu zuen:

Hizkuntza baten benetako ingurunea erabiltzen duen gizartea da. [...]. Beraz, hitzunek elkarrekin eta naturarekin dituzten harremanak hartzen dira kontuan. Ekologiaren parte bat psikologiak aztertzen du, beste hizkuntzekiko elkar eragina gizaki elebidun edota eleanitzen arteko burmuinean gertatzen delako. Beste alderdi batean, ordea, hizkuntzaren ekologia soziologikoa izango da, izan ere, komunikazio-bitarteko modura dituen gizarte funtzioak aztertuko baititu [Haugen 1972: 325].

Aldi berean, ekologiaren antzera, aztertzeke modu dinamikoa proposatzen du estatikoaren orde, eta beraz, hizkuntzalarietako giza arloko gainerako zientifikoekin elkarlana beharrezkoa dela plazaratzen du hizkuntzen eta hitzunen arteko harremanak aztertzeke.

Esan bezala, hizkuntzen ekologiak edo ekolinguistikak⁵ hizkuntzen eta ingurumenaren arteko harremanak aztertzen ditu; esan nahi da hizkuntzen arteko harremanak eta hizkuntza horien eta gizartearen artekoak, gizartea hizkuntzen ingurumena baita. Noski, modelo hori metafora bat da, baina erlazio konplexu horiek ulertzen laguntzen digu, printzipio deskriptibo eta esplikatzailea ekarriz (Coyos 2010:182).

Kontuan izan behar da Haugen-ek kontzeptua eta terminoa proposatu zuenerako ekologiak *ekologismorako* jauzia ere egina zuela (Meadows Txostena 1972. urtekoa dela gogoratzea komenigarria da puntu honetan). Eta hasieratik bertatik ekintzaile izaera bereganatu zuen hizkuntza-ekologia arloak.

Hemen abiatzen da azterketa eta erantzun eredu bat, Haugen-en hitzetan jada,

Batek iradoki dezake ekologia ez dela soilik zientzia deskribatzaile baten izena, baizik eta bere erabileran zabalitze bat egon da eta jada ingurumenaren sendatzearen ikurra ere bihurtu dela [Haugen 1972: 329].

Eta bide horretan hizkuntzaren esparrura eramanez *hizkuntzen zaintzaz* ere hitz egin genezakeen.

Ekologia zentzu biologikoan ulertzen da; hizkuntzen errola ingurumen- eta giza arazoaren garapen eta larritzean aztertzen da; hizkuntzalaritzaren ikerketak balizko konponbideetan ere konpromisoa du [Halliday 2001: 199]⁶.

Calvet hizkuntzalari famatuarentzat ere, hizkuntzek eta euren ingurumenek sistema ekolinguistikoa osatzen dute [Calvet 1999: 35]. Gainera, hizkuntza bakoitzak bere zoko ekologikoa edo hobia du⁷. Hobi

Hizkuntzen ekologiak edo ekolinguistikak hizkuntzen eta ingurumenaren arteko harremanak aztertzen ditu; esan nahi da hizkuntzen arteko harremanak eta hizkuntza horien eta gizartearen artekoak, gizartea hizkuntzen ingurumena baita. Noski, modelo hori metafora bat da, baina erlazio konplexu horiek ulertzen laguntzen digu, printzipio deskriptibo eta esplikatzailea ekarriz (Coyos 2010:182).

Ekologiaren legeak hobeto ulertzen dira ekologia kulturalaren ikuspegitik, edo hizkuntzen erlazioa zentzu ekologiko batean ulertzen badugu. Lurra ere bakarra da, baina ez da uniformea. Batasun bat duen bio-dibertsitatea da. Arlo sinboliko eta linguistikoa gauza bera gertatzen dela ulertzen badugu, ohartuko gara ez dela apustu zoro bat, gizaki bezala bizitzearen baldintza baizik [Sarasua 1997:32].

hori beste hizkuntzekin dituen harremanen eta bere ingurumenean betetzen dituen funtzioen arabera definitzen da [ibid.: 73]. Hau da, hizkuntza-ukipenezko egoeretan hizkuntza-talde zehatz batentzat iraunkortasuna ziurtatzeko inguruneko gutxieneko baldintza-taldea [Bastardas 2003: 128]. Eta horrela, hizkuntza-ekologiak kontuan hartzen ditu besteak beste honako aldagaiak: hizkuntzak betetzen dituen funtzioak, transmisioa nola egiten den, hitzun-kopurua eta hizkuntza-errepresentazioak.

Haugen-en ikuspegitik aztertu beharreko gaiak oso esparru zabala osatzen dute: hizkuntzaren sailkapena eta beste hizkuntzekiko harreman genetikoa, hitzunik nor diren, zein diren balio demografikoak, zer funtzio betetzen dituen eta zein hizkuntzekin duen lehia. Aldi berean, hizkuntza horren barne aldaerak, idatzizko tradizioa eta estandarizaziorik ote duen, eta zein den jasotzen duen babes instituzionala. Azkenik, hizkuntzarekiko hitzunen jarrerak ere ezinbestean aztertu behar dira.

Ikus daitekeenez, hizkuntza-ekologiaren sarrera honetan bertan, ekologiari atxikitako hainbat eta hainbat gai ageri zaizkigu, hala nola, diziplina-artekotasuna eta modu sistemikoa gaiak aztertu beharra, erantzuna emateko ekintzaile izaera, zoko ekologikoa edo berehala aztertuko dugun ekosistema kontzeptua.

Ekar dezagun hona biodibertsitatea eta hizkuntza-aniztasunaren alde Fèlix Martík idatzirik honako aldarrikapen hau:

Biodibertsitatearen aldekoen irizpideekin bat gatoz askotan, kultur eta hizkuntza aniztasunaren alorrean. Biek ondarea babestu beharra dagoela diote. Eta hori esateko arrazoia ez da etikoa bakarrik: bai aniztasun biologikoaren alde egitea, bai kultur eta hizkuntza aniztasunaren alde egitea ezinbestekoa da gizakiak ongi izateko, bizia babesten duen orekari eusteko eta nahi dugun bizi kalitatea eskuratzeko. Gaur egun badakigu badela erlaziorik biodibertsitatearen eta hizkuntza aniztasunaren artean [Martí eta al 2005: 17-18].

Eta amaitzeko ildo bertsutik *Txepetx*-en hitzok Jon Sarasuarekin so-lasean:

Ekologiaren legeak hobeto ulertzen dira ekologia kulturalaren ikuspegitik, edo hizkuntzen erlazioa zentzu ekologiko batean ulertzen badugu. Lurra ere bakarra da, baina ez da uniformea. Batasun bat duen bio-dibertsitatea da. Arlo sinboliko eta linguistikoa gauza bera gertatzen dela ulertzen badugu, ohartuko gara ez dela apustu zoro bat, gizaki bezala bizitzearen baldintza baizik [Sarasua 1997:32].

2.1 Metafora biologikoa

Komeni da hemen geldiu netxo bat egitea metafora biologikoari buruzko ohar batzuk egiteko, izan ere, gain honen inguruan, erraz hedatu diren ulertze okerrek espero ez ziren ondorio kaltegarriak ekarri izan dituzte.

Metafora biologikoa deritzo hizkuntzak izaki bizidunak balira moduan kontsideratzeari. Metafora hori XIX. mendetik datorren ideia bat da, izan ere, Darwinen teoria hedatzen ari zen garai bertsuan, hizkuntzen jatorri komuna aztertzen zuen hizkuntza-tipologia jakintza-arloa garatu zen modu esanguratsuan. Aldi berean eratzten joan ziren, esate baterako, hizkuntzen bereizketa irudikatzeko eta harreman *genetikoak* ulertzeko *zuhaitz genetikoak*. Zuhaitz horietako enbor nagusitik hizkuntza-adarrak sortu eta garatzen ziren eten gabe, egungo hizkuntzak prozesu horren emaitza izanik. Metafora, jakina oso erakargarria da. Natur zientzien arloan nolabaiteko iraultzarekin bat egin zezakeen metaforak elementu oso pizgarriak zituen. Baina, metafora horren onartze zabalak nahi izan ez ziren ondorioak ekarri zituen. Harrez gero, hainbat ideia oker hedatu izan dira. Horien artean zabalduenak eta arriskutsuenak honakoak: hizkuntzak *izaki bizidunak badira*, 1) *hizkuntzak jai*o, *hazi eta hiltzen dira halaberharrez, modu naturalean*; eta 2) *bizirauten duten hizkuntzak berez dira indartsuagoak, eta horregatik bizirauten dute: handiek txikiak jaten dituzte*.

Haugen-ek bere lehen artikuluan bertan aipatzen zuen metafora horren interpretazio hertsiaeren desegokitasuna, eta ordurako hizkuntzalaritzan bazterturiko ideia zela planteatzen zuen, behintzat modu hertsian hartuta. Hala ere, aztertze modu eraginkorra izan zitekeelakoak erabili zuen, ordurako, natur zientziatik giza zientzietara ere igarota baitzegoen *Giza Ekologia* kontzeptu modura [Haugen 1972: 327].

Gaur egun ere, Darwinismoarekin loturiko determinismoa ezartzen duen ideologiaren aztarnak aurki daitezke sarri hizkuntza gutxituen aldeko ekimenak oztopatu nahi dituztenen artean.

Kontuan izan behar dugu beraz, hizkuntzak desagertzen badira ez dela derrigorrez hala gertatu behar duelako. Aldiz, eurengandik kanpo dauden arrazoiak eragiten dute ez egotea giza talderik hizkuntza hori hitz egiten duenik. Hizkuntzak ez dira hiltzen, ez dira desagertzen; gertatu ohi dena hizkuntza hori hitz egiten zuen pertsonarik jada ez egotea da, dela azken hiztunak desagertu direlako edota hitz egiten zuten pertsonak hizkuntza indartsuago bat hartu dutelako berezkoa zutena erabiltzeari utziaz, ordezkatzeko-prozesua gauzatuz..

Nolanahi ere, metafora hori erabiltzen jarraitzen dugu, bai maila zientifikoan hitz egiterakoan (hizkuntzen bizitzaz, heriotzaz, bizitasun

Hainbat ideia oker hedatu izan dira. Horien artean zabalduenak eta arriskutsuenak honakoak: hizkuntzak izaki bizidunak badira, 1) hizkuntzak jaio, **hazi eta hiltzen dira halaberharrez, modu naturalean; eta 2) bizirauten duten hizkuntzak berez dira indartsuagoak, eta horregatik bizirauten dute: handiek txikiak jaten dituzte.**

Ekologiaren ereduari jarraituz hizkuntza-ekologiaren aztergaiak ikertzeko eta azaltzeko ideia nagusiak honakoak direla esango genuke:

1) (Eko)sistem(ar)en izaera orekatua.

2) Sistemaren aldagai guztien identifikazioa eta euren arteko harremana.

3) Gertatzen diren desoreken arrazoiak, ardurak eta erantzukizunak.

4) Oreka berriak eraikitzeko proposamenak.

etnolinguistikoaz aritzean...) eta baita gizarte-mailan ere. Kontuan izan bestalde, hizkuntzak izaki bizidunekin erkatu orde ezpeziekin konparatzen baditugu metaforak errealitatea hobeto azaltzen duela. Esate baterako, espezien galera (desagertzea) ez dago espezie beraren baitan oinarrituta. Aldiz, kanpo eraginaren ondorioz desagertzen dira, ekosistemaren oreka modu itzulezinean galdu ondoren. Antzera gertatzen da hizkuntzekin. Beraz, kontuan hartu behar da hizkuntzak ez direla sistema bizidunak, baizik eta *sistema bizidunen parte bat* [Steffensen 2007:13]⁸.

2.2 Hizkuntza-ekologiaren aztergaiak maila desberdinetan, eta azterketarako ideia nagusiak

Hizkuntzaren ekologiak baditu gutxienez bi adiera, hainbat ikerleren ustez kontraesanetan daudenak, baina beste askorentzat osagarriak direnak. Bi esparru horiek honakoak dira:

Hizkuntza-ekologiaren bitartez

1) Eremu zehatz batean ukipen-egoeran dauden hizkuntza desberdinen arteko harreman ekologikoak aztertzen dira, eta

2) Hizkuntza bakoitzak bere ingurunearekin duen harreman ekologikoez aritzen da [Pennycook 2004: 217].

Bi adiera horien inguruan bibliografia ugari aurki daiteke. Iturri gehienek elkar osatze bat badutela aitortu arren, aditu bakoitzak horietako bat edo beste indartu edo indartzen ari da. Gure aldetik, bi hurbilketa-moduak noizbehinka kontraesantetan sar badaitezke ere, osagarriak direla uste dugu. Eta horrela landuko ditugu, biak hala biak, hizkuntza-aniztasuna hizkuntza desberdinen arteko harreman modura, eta hizkuntza ekosistema modura, hizkuntza eta bere ingurunearen artean sortzen den harremanen azterketa eta erantzun modura.

Ekologiaren ereduari jarraituz hizkuntza-ekologiaren aztergaiak ikertzeko eta azaltzeko ideia nagusiak honakoak direla esango genuke:

1) (Eko)sistem(ar)en izaera orekatua.

2) Sistemaren aldagai guztien identifikazioa eta euren arteko harremana.

3) Gertatzen diren desoreken arrazoiak, ardurak eta erantzukizunak.

4) Oreka berriak eraikitzeko proposamenak.

Beste modu batean formulatuta Maria-Jose Azurmendik hizkuntza-ekologiaren paradigma honako ezaugarriek definitzen du: 1) Giza eskubideak errespetatzen dituen ikuspegia; 2) Berdintasuna komunikazioetan; 3) Eleaniztasuna; 4) Hizkuntzak eta kulturak mantentzea; 5) Subiranotasun nazionalari babesa; 6) Atzerriko hizkuntzak ikasteko sustapena [Azurmendi 2010: 146].

Ekosistemaren ikuspegitik hizkuntza bere testuinguruaren baitan aztertu behar da. Zein da hizkuntza eta komunitatearen arteko lotura? Zer balio du hizkuntzak giza taldearen identitatearen eraikuntza eta praktikan? Zer lotura du adierazpide kulturalekin? Antolaketa sozialarekin? Edota esparru geografikoarekin (lurrarekin)?

Eta beste aldean, hizkuntza desberdinak kontaktuan jartzen direnean, batez ere kontaktua intentsitate handikoa denean, zer elementuk egiten du hizkuntza horiek bizi daitezen, eta ez bat bestearen mesedetan alboratzea? Zerk baldintzatzen du kontaktuko egoera horretan iraunkor izatea? Zer-nolako hobia du hizkuntza batek soziokulturalki funtzio nahikorik izanik, bere iraunkortasuna ziurtatzeko eta ondorengo belaunaldiengana iragateko? (Bastardas 2005:20). Helburua ekosistemaren oinarriko oreka mantentzeko neurriak hartu beharraz ohartzea da, hizkuntza baten iraunkortasuna ez baitago soilik hizkuntza horren baitan, baizik eta ekosistema soziokulturalaren baitan.

Era berean, hizkuntza-ekologiak honako gaiak aztertuko ditu:

- 1) Aniztasuna, banaketa, hedapena eta ukipen-egoerak
- 2) Homogeneizatzeko joera (aniztasuna galtzeko arriskua, hizkuntzak desagertzeko arriskua)

Baina deskribatzeaz gain hizkuntza-ekologiak erantzuteko paradigma berri bat eskaini nahi du, nahiz eta oraindik lan handia izan eredu gardenak izateko, bakoitza bere fasetan planteatzeko eta interbentziorako lehentasunak eta estrategia zehatzak eta ebaluazio-moduak eskuratzeko (Bastardas 2005: 25).

Zein dira, horrenbestez, hizkuntza-ekologiak hizkuntzen banaketa, ugaritasuna eta ingurune komunarekiko harremanak aztertzekeko paradigmaren nagusitzen diren ideiak? Funtsean aipatu behar ditugunak sistemaren izaera orekatuan, oreka galtzearen arrazoiak, ondorioak, arriskuak eta erantzukizunak, eta, batez ere, oreka berriak sortzeko proposamenak. Nolanahi ere, errealitatea modu dinamikoan garatzen doa, gehiago du prozesutik egituratik baino [Bastardas 2003:123].

Deskribatzeaz gain hizkuntza-ekologiak erantzuteko paradigma berri bat eskaini nahi du, nahiz eta oraindik lan handia izan eredu gardenak izateko, bakoitza bere fasetan planteatzeko eta interbentziorako lehentasunak eta estrategia zehatzak eta ebaluazio-moduak eskuratzeko.

Hizkuntza-aniztasunaren deskribapena egiterakoan, azpimarratzeko ideia da gaur egun hitz egiten diren hizkuntza guztiak gizateriaren historia soziolinguistikoren emaitza direla. Hau da, prozesu dinamikoak direla, gizakiaren esku hartze zuzena izan dutela, eta ekologiaren kasuan bezala, hainbat eta hainbat kasutan modu okerrean zuzendurikoak izan direla. Prozesu horietan beraz, hizkuntzaren aldakortasunaz gain esparru ekonomiko, politiko eta sozialeko aldagaiek parte hartzen dute.

Aipatutako gaien azterketa (hizkuntza-aniztasuna, banaketa, hedapena, ukipen-egoerak eta aniztasuna desagertzeko arriskua) deskribatzearekin abiatzen da. Baina azterketa-maila desberdinak egitea beharrezkoa da, honela:

- Mundu-mailako hizkuntzen aniztasuna eta banaketa aztertuz.
- Hizkuntza-komunitatearen maila kontuan hartzen duen begiratu.
- Norbanakoaren hizkuntza esperientziaren kontzientzia kontuan hartuz.

2.2.1 Mundu-mailako azterketa

Munduko hizkuntza-aniztasunaz hitz egiterakoan, aniztasunaren bila-kaeraren inguruko hipotesiak aztertzen dira, aniztasun biologiko, kulturala eta hizkuntzari dagokionaren arteko harremanen definizioaren bila. Adibidez, aniztasunaren genesiaren arrazoiak antzekoak izan daitezkeela aniztasun biologikoaren kasuan eta hizkuntzarenean azken urteetan indartzen ari den hipotesia da, hau da, isolamendu genetikoak, bizitzarako espezializazioak, eta propietate *autopoietikoa* izenekoen (autoorganizatzailea) ondorioz sortu dira bi kasuetan [Bastardas 2003:126]. Gainera, geografikoki hizkuntza-aniztasuna eta bioaniztasuna lotzen dituen hainbat teoria ere garatu dira. Horren inguruan, esate baterako, Daniel Nettle eta Suzanne Romaine egiten ari dira hainbat lan⁹.

Hizkuntza-aniztasunaren deskribapena egiterakoan, azpimarratzeko ideia da gaur egun hitz egiten diren hizkuntza guztiak gizateriaren historia soziolinguistikoren emaitza direla. Hau da, prozesu dinamikoak direla, gizakiaren esku hartze zuzena izan dutela, eta ekologiaren kasuan bezala, hainbat eta hainbat kasutan modu okerrean zuzendurikoak izan direla. Prozesu horietan beraz, hizkuntzaren aldakortasunaz gain esparru ekonomiko, politiko eta sozialeko aldagaiek parte hartzen dute. Eta ikuspegi dinamiko eta sistemiko horretatik aztertu beharra azpimarratzen da.

Hizkuntza-aniztasunaren deskripzioa ez dugu dokumentu honetan egingo, izan ere, gai horren inguruko informazioa biltzen duen bibliografia oso zabala da. Akaso, aipatu genitzake Stephen Würm, Juan Carlos Moreno Cabrera, David Crystal, Bernard Comrie, Calude Hagège moduko adituak hizkuntza-aniztasunaren inguruko erreferentzi modura. Interneten ere, ugariak dira azken urteotan hizkuntza-aniztasunaren berri emateko helburuarekin zabaldu diren leihoak: UNESCO, ULaval, Ethnologue, Amarauna, Linguamon e.a.

Aipatu bezala, aniztasuna galtzeko joeraren berri ere hizkuntza-ekologiak ematen du. Joera horren neurria, jatorria, arrazoiak eta joera

horiek ez direla berez sorturikoak baizik eta -aniztasuna biologikoaren kasuaren antzera- gizakiak eragindakoak hein handi batean azaleratzen du. Hizkuntza galtzearen inguruko lehenetariko lan inportantea Krausek argitaratu zuen 1992. urtean. Artikulu horren bitartez alarma gorri guztiak piztu zituen transmititzen ez diren munduko hizkuntzen kopurua oso-oso altua zela demostratu zuelako [Kraus 1992]. Hizkuntza-galeraren inguruan ere lan ugari argitaratu dira azken urteetan. Gure inguruan argitaraturiko *Munduko Hizkuntzen txostena* [Martí et al.:2005] aipa daiteke hizkuntza galeraren arrazoiak ematen saiatu zelako mundu zabaleko ikerketa batean oinarrituta, edo berrikiago Joxe Manuel Odriozolaren *Estatu etnozidaren kontra* [Odriozola 2011]. Baina hizkuntzen galeraren inguruan David Crystal eta Mattias Brenzinger bezalako hizkuntzalariak ezin dira aipatu gabe utzi. Modu berean, UNESCOren *Munduko arriskupeko hizkuntzen munduko mapak* informazio oso zehatza ematen du gai horren inguruan.

Modu zehatz batean egingo ez badugu aipatuko ditugu mundu-mailan aldi berean gertatzen ari diren hiru gertaera/joera munduko hizkuntza-aniztasuna kinka larrian jartzen ari direnak. Horiek dira 1) estatuetako hizkuntza ofizialek euren esparru geografikoen baitan bertako hizkuntzen ordezkatzeko masiboa, 2) ingelesaren mundu mailako *lingua franca*-ren hedatze ia masiboa eta -momentuz- eztabaidaezina, eta 3) ezagutzen den inoizko hizkuntza-aniztasun handiena duen migrazio-mugimendu zabalena.

Mundu-mailako hiru fenomeno horien azterketa modu sistemati-koan eta diziplina-artekoa eskatuko luke, baina hemen proposamen ekologikoaren nondik norako batzuen bueltan soilik arituko gara. Esate baterako, begi-bisatak da mendeetan zehar garatu den *estatu bat/hizkuntza ideia* erabat erasotzailea dela munduko hizkuntza ia guztientzat. Munduko estatu bakoitzak hizkuntza bakarra izango balu ofiziala ere (194 estatu daude munduan gaur egun) munduko hizkuntzen %3ra ere ez zen helduko estatus hori izango lukeen hizkuntza-kopurua. Eta jakina da hori ez dela horrela; adibidez, ingelesa 70etik gora estatutan da hizkuntza ofiziala edo koofiziala; frantsesa, 30etan; gaztelania 20tan; arabiera 20tan eta portugesa 6 estatutan [Martí et al.: 146]. Hizkuntza nagusiak mundu mailako hedatzearekin batera sorturiko egoera desorekatuek, tokian tokiko hizkuntzak alboratzea eta, sarri, desagertze-arriskuan jartzea dakar, eta honela gertatzen da, besteak beste:

Bi joera nagusitzen dira: alde batetik, populazioek euren hizkuntzak hitz egiteari uztea eta estatuko edo munduko kode nagusiak bereganatzea helburu duena,

Hiru gertaera/joera munduko hizkuntza-aniztasuna kinka larrian jartzen ari direnak. Horiek dira 1) estatuetako hizkuntza ofizialek euren esparru geografikoen baitan bertako hizkuntzen ordezkatzeko masiboa, 2) ingelesaren mundu mailako *lingua franca*-ren hedatze ia masiboa eta -momentuz- eztabaidaezina, eta 3) ezagutzen den inoizko hizkuntza-aniztasun handiena duen migrazio-mugimendu zabalena.

**Hizkuntza-
ekologia
ideologia
dominatzaileak
eta hedatzaileen
berezko horien
aurreko
prebentzioa
erakutsiko luke.
Garrantzia du
hizkuntzak
hierarkizatzeo
arrazoirik ez
dagoela azaltzea,
eta hizkuntza
guztien eta
kultura guztien
berdintasuna
aldarrikatzea
ezinbesteko lana
dela.**

euren garapen ekonomiko eta kulturalean aurrera egiteko asmoarekin eta bestalde, borroka hizkuntza-aniztasunaren aldekoa da eta talde-identitateen gordetzearen aldekoa, izan ere, hori baita tradiziozko sistemaren galerak dakarren organizazioaren galerak eta pobrezia saihesteko bidea, batez ere talde bakoitzak garatu duen ezagutza eta kultura propioa galtzen denean [Bastardas 2005:16].

Egoera honen aurrean balizko erantzunak asko dira. Ikuspegi ekologiko batetik aipatu nahi nituzke honakoak, *Munduko hizkuntzen txostenak* aipaturikoak:

- Kultura- eta hizkuntza-aniztasuna mantendu beharreko ondarea dela hedatu beharko litzateke nazioarteko erakundeen eta, oro har, iritzi publikoaren artean. Era berean, altxor hori ahalik eta modu aktiboenean babestu.
- Galtzeko arriskuan dauden hizkuntzek ere –beste edozein hizkuntzak bezala- gizartearentzat aberastasun eta interes handia dutela aldarrikatu, defendatu eta arrazoitu beharko litzateke jendaurrean, eta ohartarazi zeinen faltsu eta arriskutsua den hizkuntzen hierarkiak ezartzea.
- Gutxien hedatutako hizkuntzak, ingurukoak batez ere, mantendu eta sustatu egin behar direla zabaldu beharko litzateke, oso hedapen handiko hizkuntzen hitzunen artean bereziki; eta zeregin horretan daukaten egitekoaz jabe arazi beharko lirateke hitzunik.
- Gizartearen ondare izendatu beharko lirateke hizkuntza guztiak [Martí eta al. 2005: 143].

Ikuspegi horretatik, hizkuntza-ekologia ideologia dominatzaileak eta hedatzaileen berezko horien aurreko prebentzioa erakutsiko luke. Garrantzia du hizkuntzak hierarkizatzeo arrazoirik ez dagoela azaltzea, eta hizkuntza guztien eta kultura guztien berdintasuna aldarrikatzea ezinbesteko lana dela. Hizkuntza-iraunkortasunak giza espeziearen hizkuntza- antolakuntzaren aldaketa ekarri behar du, helburu nagusi batekin elebitasuna edo eleaniztasunaren hedatzeak ez duela taldearen hizkuntza baztertu beharrik [Bastardas 2005:17].

Mundu-mailako aipaturiko bigarren joeraren inguruan ere hitz bi esatea komeni da. Gai honen inguruan oso lan bikaina egin du David Crystal-ek bere *Hizkuntzen Iraultza* liburuan. Eta beraz, ideia pare bat besterik ez ditugu hona ekarriko. Alde batetik, esan daiteke ia erabat onartuta dagoela gaur egungo –eta ziur asko etorkizun hurbilean ere-

behar beharrezkoa dela hizkuntza *franca* edo nazioarteko hizkuntza modura ingelesaren erabilera. Nolanahi ere, funtzio hori emanaz gero, argi geratu beharko litzateke ikuspegi ekologiko batetik, hizkuntza zehatz horren hedatzeak ez lukeela ezinbestean ekarri behar bere jatorrizko kulturaren hedatu beharra (izan Estatu Batuak, Ingalaterra edo beste). Beraz, onuragarri izango litzateke gutxienez mendebalde osoan hedatzen ari den ingelesaren irakaste goiztiarraren baitan ideia hau zabaltzea.

Azkenik aipatu dezagun migrazio mugimendu orokortuen inguruko hausnarketa bat. Hizkuntza-aniztasun handiarekin gertatzen ari diren mugimendu horiek aniztasun berriak sortzen ari dira heldu-toki guztietan. Aniztasun berri horren kudeaketa ekologikoak planteatzea erronka handia da harrera-gizarte guztientzat. Baina mailaz mailako arduradunek gogoan izan beharko lukete, gutxienez, hizkuntza eta kultura guztiek eskubidea dutela hainbat funtzio betetzeko. Sortzen ari diren kultura-arteko gizarte berriek berdintasunean eta pluralitasunarekiko errespetuan oinarritu behar lukete [Uranga et al.:2008:5].

Beraz, ezinbesteko eginbeharra da hizkuntza-aniztasunaren gordeztearen ideia zabaltzea, espezie eta naturaren kasuan egiten den moduan. Zergatik gizakiek utzi behar diote euren hizkuntzetan hitz egiteari hizkuntza hedatuagoen mesedetan? Zergatik ez esleitu lehentasunezko funtzio batzuk ahal den neurrian egoera ahulago batean dauden hizkuntzen kasuetan?

Bastardas-ek dioen moduan hizkuntza “handietako” hiztunek bereziki izan behar dute etika soziolinguistiko bat egoera kaxkarragoan dauden hizkuntzekiko errespetuzkoa, bai mundu-mailan zein ingurune hurbilean ere.

Fishman-ek ere hizkuntza guztien mantentzearen aldeko jarreran honela argudiatzen du hizkuntza guztien indartu beharra:

Gaur egungo globalizazio prozesuaren baitan, hizkuntza txiki askok ezin eutsiko diote osasunari, beren baliabideetara mugatzen badira. Hala ere, horien kulturek Wallamrt edo Coca-cola baino askoz ere dohain humanoagoak dituzte. Beraz, gure mundua hizkuntza txikientzat ere mundu segurua izan dadin lortu behar dugu, haiei lagunduz eta haiek gordez, gure hobe beharrez (eta haien hobe beharrez). Segurtasuna hizkuntza erraldoiei soilik ematen bazaie, ez dago orekazo jokorik, batzuk irabazle eta besteak galtzaile izango dira. Guztiek galtzen dute joko horretan, kultura murrizketa jasan duen giza ingurunean arriskuan egon baitaitezke beste bizimodu batzuk ere. Horregatik galtzen dugu guztiok “beste herri batzuen hizkuntzak” galtzen direnean. Linguizidioda desagerrarazi egin behar dugu munduko bazter orotatik, gu guztien

**ezinbesteko
eginbeharra da
hizkuntza-aniztas
unaren
gordeztearen
ideia zabaltzea,
espezie eta
naturaren
kasuan egiten
den moduan.
Zergatik gizakiek
utzi behar diote
euren
hizkuntzetan hitz
egiteari
hizkuntza
hedatuagoen
mesedetan?
Zergatik ez
esleitu
lehentasunezko
funtzio batzuk
ahal den
neurrian egoera
ahulago batean
dauden
hizkuntzen
kasuetan?**

**Demagun
euskararen
ekosistema
hartzen dugula
aztergai. Aztertu
behar dena
euskarak bere
lurren izan
duen bilakaera
geografikoaren
baitan zer-nolako
bidea egin duen,
eta zein diren
ekosistemari
eusteko baliabide
nahikoak.
Horregatik
aztertuko dira
besteak beste
honako datuak:
Euskararen
hedadura /datak
eta prozesuak/
kontaktuan
zeuden
hizkuntzak/
babes
instituzionala eta
soziala/
kultura-arloko
adierazpenak eta
horien pisuan
gizartea, eta
abar.**

suizidio modu bat baita. Gure bizitzan benetako edertasunaren eta edertasun
potentzialaren parte bat, horixe da munduko edozein bazterretan hizkuntza
bat galtzen denean galtzen duguna [Fishman 2005: 387-338].

Garapen iraunkorrak gizartearen hobetzea eta garapena ukatzen
ez duen bezala hizkuntza iraunkortasunak ez du eleaniztasuna ukatzen,
gizakien ulertzea errazteko bidean. Alabaina, hizkuntza-talde guztien
garapena ere aldarrikatzen du. Iraunkortasun orokorrean gure ingurune
ekosistemikoa zaintzeko ahalegina egiten dugun modu bertsuan, ba-
liabide naturalak zainduz eta garatuz, hizkuntzaren gaian ere, hizkuntza
eta kultura arloko baliabideak zaindu eta garatu nahi ditugu, izan ere,
horiek ematen digute identitatearen parte handi bat. Hau ez da bitxikeria
antropologikoa gorde nahi bat, aldiz, gizakiaren eta giza talde guztien
duintasun-kontu bat [Bastardas 2005:19].

2.2.2 Maila ertaineko azterketa

Kasu honetan hizkuntza-komunitatearen ekosistema dugu aztergai.
Nolanahi ere arestian aipatu diren bi hurbilketa-moduak ere kontuan
hartu behar dira: 1) hizkuntza baten baitako aldagaiak, eta baita 2) uki-
penean dauden gainerako hizkuntzekiko ezartzen diren harremanen
ingurua ere.

Beraz, hizkuntza zehatz baten biziraupenerako ezinbestekoak diren
aldagaien inguruko ikerketa, deskribapena eta erantzuteko moduaz ari
gara. Eta aldagai horien arteko harremanez.

Demagun euskararen ekosistema hartzen dugula aztergai. Aztertu
behar dena euskarak bere lurren izan duen bilakaera geografikoaren
baitan zer-nolako bidea egin duen, eta zein diren ekosistemari eusteko
baliabide nahikoak. Horregatik aztertuko dira besteak beste honako da-
tuak: Euskararen hedadura /datak eta prozesuak / kontaktuan zeuden
hizkuntzak/ babes instituzionala eta soziala/ kultura-arloko adieraz-
penak eta horien pisuan gizartea, eta abar. Garrantzia berezia izango
du hizkuntzarekiko hitzunez erakusten dituzten jarrerak aztertzea. Izan
ere hortik abiatuz uler daitezke, eta behar izanez gero, norabidez aldatu
praktika egokiak. Helburua, lehen aipatzen zen moduan hizkuntza-
ukipeneko egoeran (gutxienez elebitasun orokortuaren egoeran) jato-
rrizko hizkuntza erabiltze eta transmititzeari ez uztea da, besteak beste.

Bide horretan, esanahi berezia izan dezake, nola ez, hizkuntza be-
raren aberastasunaren eta aniztasunaren kontzientzia ere zabaltzea hiz-
tunenengan. Horrela bada, hizkuntza-aldaera desberdinen eta estanda-
rren arteko funtzio eta garrantzia azpimarratu nahi da. Eta horretarako

garrantzia hartzen ari da eremu sozial desberdinetako hizkerak (arrantzaleak, meategiko langileak, hiriko profesionalak, musikariak, baserritarrak), euskalki desberdinen arteko hizkerak (aldera geografikoak), belaunaldi desberdinen arteko hizketaldiak (gazteak helduak, umeak...) aztertu eta batez ere agerian jarri eta baloratzea.

Jakina, euskararen ekosistema hizkuntza indartsuagoekin kontaktu oso zuzenean dago, eta bien arteko harremanetan irizpide ekologikoak abian jartzea ere garrantzizkoa izango da.

Esate baterako, har dezagun elebitasun egoera masiboa gertatzen dela lurralde batean gurean gertatu den bezala. Kasu horretan, hiztunek badute bi hizkuntza horien inguruko balorazio zehatz bat. Balorazio horrek eta hizkuntza bakoitzari atxikitako funtzioen banaketek eragingo dute neurri handi batean hizkuntza horien etorkizuna. Adibideari jarraituz eta modu sinplean azalduz, esan dezagun hizkuntza horietako batek balorazio handiagoa badu eta gainera esparru publiko guztietan erabiltzeko funtzioa bereganatzen badu ziur asko etorkizunean irauteko aukera handiagoa izango duela. Jakina da taldearen irudi baikor batek (izan maila ekonomiko, kulturala edo besteren bat tarteko) errazago eutsiko diola hizkuntzari alderantzizko kasuetan baino. Kontrako kasuetan, garrantzia berezia du talde bezala garatzeko autokontrolik ez izatea, kasu horietan gizarteek errazago uzten baitute alde batera euren hizkuntza (Bastardas 2005:33).

Horregatik, bada modu argi bat hori babesteko: Nola lortu hizkuntza-aniztasun jasangarria? Ideia nagusia da elebidun edo eleanitz diren hiztunek hizkuntza txikiaren funtzio oinarrizkoak ez saihestea edo galtzea eguneroko bizitzan, hau da, tokian tokiko hizkuntza "txikiak" bete ditzakeen funtzioak ez ditzala hizkuntza globalago batek hartu. Horretarako, kasu bakoitzean interbentzio desberdinak irudikatu beharko dira eta hor dago lan handiena, baina kontua da filosofia hori aintzat hartu behar dela, eta lortu behar dela norberaren hizkuntza ez alboratu behar izatea.

Carme Junyent-ek dioenez:

Hizkuntza baten funtzioak murrizten direnean (zein hizkuntzatan mintzo naizen familiarekin, adiskideekin, lankideekin edo ikaskideekin, zuzendari jaunarekin edo etxeko neskamearekin edo ezezagunekin, eskolazainarekin, dendariarekin, medikuarekin edo epailearekin...), orduan etsairik kaltegarrienarekin borrokatzen ari gara: etsai ikusezina. [...] Hizkuntza baten estatusa ahultzen hasten denean eta batez ere bere hiztunen mailak behera egiten duenean (norbere hizkuntzan mintzatzea baserritar, probintziano, txobinista, "atzerakoi" eta abar deitezko arrazoi izaten denean) lehenbailehen kontrapisu baten bila hasi beharko dugu

**Nola lortu
hizkuntza-
aniztasun
jasangarria?
Ideia nagusia da
elebidun edo
eleanitz diren
hiztunek
hizkuntza
txikiaren funtzio
oinarrizkoak ez
saihestea edo
galtzea
eguneroko
bizitzan, hau da,
tokian tokiko
hizkuntza
"txikiak" bete
ditzakeen
funtzioak ez
ditzala hizkuntza
globalago batek
hartu.**

**Hizkuntza
hedatuetakoa
hiztunak bereziki
sentsibleak izan
beharko lukete
hizkuntza-arloan,
jakin baitakigu
gaur egun
hizkuntza zehatz
bat irauten dezan
garai bateko
egoeratan baino
ahalegin
handiagoa
eskatzen duela,
eta hizkuntzak
bizirik irautea
nahi bada,
aldeko praktikak
jarri behar direla
abian.**

presio horri aurre egiteko, ez badugu nahi komunitate hori bete-betean eta itsu-itsu joan dadin hizkuntza menperatzaielak eskaintzen dion mundu zoriontsurantz [Junyent 1996: 47-48].

Ekar dezagun hona momentu batean euskararekiko lotu ohi diren hainbat eta hainbat aurreiritzien pisua, egungo gizarte modernoaren baitan bere lekua hartu ezinik dabilen kasuetan. Gazteengan, esate baterako, euskarak balio erakargarriak transmititzeko zailtasunak eta perzibitzen duten modernitatearen kontrako irudia aldatzeko bideak asmatu beharra ezinbestekoa izango da.

Ukaezina da hizkuntzaren iraunkortasunaren gaia estatuen ardurengan eta administrazio publikoen ardurapeko gaiak direla, eta haien ardura handia da hizkuntza-jasangarritasunaren aldeko apustua egitea, hizkuntza-aniztasunaren aldeko praktikak abian jartzea. Batez ere, hizkuntza hedatuetakoa hiztunak bereziki sentsibleak izan beharko lukete hizkuntza-arloan, jakin baitakigu gaur egun hizkuntza zehatz bat irauten dezan garai bateko egoeratan baino ahalegin handiagoa eskatzen duela, eta hizkuntzak bizirik irautea nahi bada, aldeko praktikak jarri behar direla abian [Bastardas 2005:43].

Hizkuntza baten ekosisteman mugimendu migratzaileek hizkuntza-aniztasuna denbora-tarte oso txikian asko handitu dezakete, batez ere kopuruak ere tamaina handikoak badira. Sisteman desoreka sor dezaketela esan daiteke, baina hor ere, ekologia printzipioak gailendu beharko lirake. Kasuan kasuko azterketa eta praxia proposatu beharko litzateke baina adibide moduan euskararekin batera lurralde txiki honetan bizi diren gutxienez 100 hizkuntza berriek ere bere lekua izateko aukera izan beharko lukete. Euskara arretaz tratatuko duten politikak eta prozesuak eskatuko ditu horrek, egoera konplexuari erantzuteko proposamenak. Planteamenduak erakunde publikoetatik hasi eta norbanakoarenganainoko hedadura izan beharko du.

2.2.3 Maila mikroko azterketa

Aztergai dugun esparru honetan, gizakiaren hizkuntza-esperientziaz ari gara. Bi hurbilketa-moduak kontuan hartzen baditugu aztertuko dugu hizkuntza bakoitzaren baitan ageri diren aniztasun-adierazpideak. Alde batetik, (norbanakoaren lehen hizkuntza dei dakiokena) norberaren hizkuntzak/ek zer harreman du(t)en identitatearekin, nolako perzeptzioak, balorazioak, kulturarekiko harremanak, komunitatearekiko loturak eta hizkuntza-moduen hautuan eragiten duten gainerako alda-gaiak aztertuko dira. Eta horietan, komunitateko hizkuntzaren barne

aniztasunaren inguruko aldagaiak ere bai: estandarraren erabilera, aldagai sozial zein geografikoen funtzioa, jarrera eta erabilera eta abar

Ekartzen badugu bigarren hurbilketa-modua, agerian geratuko zaigu norbanakoak duen hizkuntza erreperitorio osoko sistema. Ba al da lehen hizkuntzarik? Zein hizkuntza gehiago hitz egiten dira? Zer funtzio betetzen dute? Zer-nolako irudia proiektatzen dute horietako bakoitzak? Zein balorazio hizkuntza bakoitzarekiko?

Idea horiek guztiak, azkar batean aipatu baditugu ere, kontuan izan behar dugu, egungo gizarte modernoetan -gurea kasu-, pertsonak gero eta eleanitzagoak garela. Eta hori ezinbestean gertatzen ari da. Baina ikuspegi ekologiko batetik oso garrantzizkoa da gertatzen ari diren aldaketa horien gaineko kontzientzia izatea. Hasieran esan bezala, azterketa linealak ez dira jada gertakizunak azaltzeko baliagarri, esan nahi baita, adibidez, ez dela berez, modu naturalean ingelesa hedatu nazio arteko hizkuntza komun bezala. Eta gertaeraren tamaina kontuan hartuta ondorioen kontzientzia hartzea komeniko litzateke.

Gurean bezalako pertsona eleanitzek errealitatearen berri kritikoa izan beharko lukete, jarrera aktiboa izatea ezinbestekoa baita hizkuntza aniztasuna gordetzeko. Gainera hizkuntza ahulagoak biziraun dezaten ezinbestekoa da neurri zuzentzaileak praktikan jartzea, gauzak bere horretan utziz gero galera erraz etor daitekeelako. Eta hori norberaren erantzukizuna ere bada. Izan ere, geure hizkuntza hitz egiteari guk utziz gero munduko biztanleriak ez liguke barkatuko.

AZKEN OHARRA

Dokumentu honen sarreran aipatzen genuen ekologia terminoa hizkuntzaren arloan erabiltzearen arrazoiak azaltzen saiatuko ginela; ... Terminoz gain kontzeptua bere osotasunean erabiltzeko sakoneko arrazoiak egon badaudela azaleratzen saiatuko ginela.

Hizkuntza-ekologiaren gaiaren inguruko sarrera izanik, kontzeptualizazio horri oinarria ezarri diogulakoan gaude. Ekologiaren teoriemarkoa etengabe garatzen ari da adabegi desberdinetan banatzen diren adar berriak ematen dituelarik; adar berriak baina enbor bakar bati helduta. Eta hori du bere ezaugarri, erabat dinamikoa eta parte-hartzailea izatea, alegia. Adar horien guztien aplikazioan dago, nolana ere, gakoa. Izan ere, ez dago koherentzia osoa izango duen marko teorikorik -esparru guztietako- eta praktika-ereduak bilduko duen sistema osorik, oraingoz. Eta hor kontraesanak sor daitezke. Baina lehenago aipatu izan dugun modura, kontraesan horiek ez digute oztopo egiten propo-

**Gurean bezalako
pertsona
eleanitzek
errealitatearen
berri kritikoa
izan beharko
lukete, jarrera
aktiboa izatea
ezinbestekoa
baita hizkuntza
aniztasuna
gordetzeko.
Gainera
hizkuntza
ahulagoak
biziraun dezaten
ezinbestekoa da
neurri
zuzentzaileak
praktikan
jartzea, gauzak
bere horretan
utziz gero galera
erraz etor
daitekeelako.**

**Hurrengo
erronka beraz,
hizkuntza-
ekologiaren adar
desberdinetako
edukietan
sakontzea izango
da, eta
hizkuntza-praktika
ekologikoen
inguruko
proposamenaren
lanketari heltzea.**

samen eta praxi-modu berriak abian jartzeko orduan.

Hizkuntza-ekologiaren esparruan ere antzera gertatzen da. Marko teorikoa adar desberdinetan garatzen ari da etengabe, eta adar horiek maila desberdinetako proposamenak egiten dituzte. Sarrera-dokumentu honetan adar horien inguruko iruzkin batzuk soilik eman ahal izan ditugu, eta ondoren etorriko da horietako bakoitzaren garapena egitea. Baina Bastardas-ek dioen modura, lan asko dago oraindik praktika gidatuko duen esparruz esparruko proposamena planteatzeko. Baina horretan ari gara, izan ere, enborra sendo ikusten dugu, eta bere *izerdiak adarrei indartzen lagunduko die*.

Esaten genuen, era berean, hizkuntza-ekologiak *ekologiaren kontzeptualizaio osoa berraztertze*ko aukera eskaintzen duela. Zergatik dugu hori? Hizkuntza-ekologiaren marko orokorraren azterketak irismen zabaleko begirada garatzea eskatzen duelako nahita nahiez: ez dago norbanakoaren hizkuntza-praktika ekologikorik planteatzerik ez badugu komunitatearen ikuspegiaren baitan kokatzen, eta komunitate horrek (komunitateak) munduan du(t)en lekua birplanteatzen ez badugu. Hizkuntza-praktika ekologikoak garatzeko gonbidapena planteamendu orokor horren baitan dago txertatuta erabat, edo bestela ez da izango. Zergatik? Hizkuntza gertaera soziala delako, baina pertsonaren alderdirik intimoena ere maitzen duelako. Beraz, pertsonaren intimitatean eragiteko motibazioak oso indartsuak izan beharko dira derrigor: *norberaren lekua munduan eta munduaren lekua norberarengan* zein den planteatzen ari gara.

Orain artean esandakoak, ikusten denez, ahalegin berezia eskatzen duelakoan gaude. Eta ahalegin horretan kokatzen dugu ekologia kontzeptua gizartean birplanteatzen laguntzea. Iruditzen zaigu termino horren inguruan desio ez ziren irudiak eta jarrerak ere garatu direla (esango genuke merkatuak eta zurikeri ekonomikoak lagunduta). Horiek, jakina, ez dituzte jarrera kontzienteak, arduratsuak eta koherenteak estaltzen. Baina ziur gaude, praktika ekologiko pertsonalek ingurune hurbiletik harago kokatuta, ondorio hobea emango dutela, eta horretan hizkuntza-ekologiak lagun dezake.

Hurrengo erronka beraz, hizkuntza-ekologiaren adar desberdinetako edukietan sakontzea izango da, eta hizkuntza-praktika ekologikoen inguruko proposamenaren lanketari heltzea.

Dokumentutxo honi amaiera emateko ezin gara ondorengo aipua egin gabe:

Hizkuntza aniztasunak, kultur aniztasunak bezala, izugarri aberasten du gizateria, eta guztion artean zaindu beharko genuke. Goitik behera aldatu behar da pen-

tsaera. Bestea benetan ulertu nahi badugu, arreta jarri beharko dugu haren hizkuntza eta kultura ulertzeko, Hori lortzeko egin beharrezko ahalegina, baina, elkarrenganako errespetuan soilik oinarritu daiteke. Bestearen kultura eta hizkuntza gurea baino gutxiago direla pentsatzen badugu, hau da, pentsaera arrazista badugu, ez dugu inoiz egingo bestea –gu baino gutxiago ez dena– ulertzen saiatzeko behar adinako esfortzua [Martí et al 2005:142]. ●

AIPAMEN BIBLIOGRAFIKOAK

- Aiestaran, Ignacio 2010: "Erantzukizuna eta iraunkortasun-zientzia". *Jakin* 177-178: 65-792). Donostia.
- Azurmendi, Maria-Jose 2010: "Hizkuntza ekologia eta jasangaritasuna, globalizazioan: euskarari begira. *Bat Aldizkaria* 75: 145-164.
- Bang 2007: "Dialectical Ecology". Vork Steffensen 2007: "Language, Ecology and Society: An introduction to dialectical Linguistics", in Jørgen Christian Bang, Jørgen Døør *Language, ecology and Society*. Continuum. London.
- Bastardas Albert 1996: *Ecologia de les llengües. Medi, contactes i dinàmica sociolingüística*.
- 2003: "Ecodinàmica sociolingüística: Comparaciones y analogías entre la diversidad lingüística y la diversidad biológica". *Revista de Llen-gua i Dret*, 39; 119-148.
- 2005: *Cap a una sostenibilitat lingüística*. Angle editorial. Barcelona.
- Calvet, Louis-Jean 1999: "Pour une écologie des langues du monde". Plon. Paris.
- Coyos, Jean-Baptiste 2010: "Hizkuntza-ukipena". *Sozolingüistika Eskuliburua*. Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.
- Crystal, David 2007: *Hizkuntzaren iraultza*. Erein-UNESCO Etxea. Donostia. [The Language Revolution 2004].
- Fishman, Joshua A. 2005: "Zer galtzen dugu gure hizkuntza galtzean?" in Martí, F. et al. 2005 *Hizkuntzen mundua: Munduko hizkuntzen Txostena*. EHU Argitalpen Zebitzua – UNESCO Etxea. Bilbo.
- Funtowicz, Silvio, Roger Sornad 2010: "Adaketa eta konpromisoa" *Jakin* 177-178: 51-62). Donostia.
- Haugen 1972: *The Ecology of Languages*. Stanford University Press. California. Itzulpena nirea.
- Junyent, Carme 1996: "Hizkuntzen bizitza eta heriotza". *BAT Aldizkaria* 19, 39-48.
- Krauss, M. 1992: "The world's Languages in Crisis" in *Language* 68 (19: 4-10).
- Martel, Angéline 2002. "Écologie des langues et idéologies de la solidarité. À la recherche des conditions de développement des commu-

- nautés linguistiques minoritaires”. Colloque International sur l’écologie des langues Annette boudrieau (et al.). L’Hamrattan. Paris.
- Martí, Felix, Paul Ortega, Itziar Idiazabal, Andoni Barreña, Patxi Juaristi, Carme Junyent, Belen Uranga eta Estibaliz Amorrortu 2005: *Hizkuntzen mundua: Munduko hizkuntzei buruzko txostena*. Unesco Etxea. Bilbo.
- Odrizola, Joxe Manuel 2011: *Estatu etnozidaren kontra*. Elkar. Donostia.
- Onaindia, Miren 2010: “Garapen iraunkorra gar: ekologiaren iraunkortasuna”. *Jakin* 177-178: 33-50. Donostia.
- Pennycook 2004: 217, Sune Vork Steffensen-ek aipatua. Vork Steffensen 2007: “Language, ecology and society: An introduction to dialectical Linguistics”, in Jørgen Christian Bang, Jørgen Døør Language, Ecology and Society. Continuum. London.
- Sarasua, Jon 1997: *Txepetxekin solasean. Biziaren hizkuntzaz*. Gara argitaletxea. Bilbo.
- Steffensen, Vork Sune 2007: “Language, ecology and society: An introduction to dialectical Linguistics”, in Jørgen Christian Bang, Jørgen Døør Language, ecology and Society. Continuum. London.
- Skutnabb-Kangas, Tove 2010: *Linguistic Genocide in Education or Worldwide diversity and Human Rights?*
- UNESCO 2010: *Atlas de las Lenguas del Mundo en Peligro*. Ediciones UNESCO. Paris.
- Uranga, Belen, Xabier Aierdi, Itziar Idiazabal, Estibaliz Amorrortu, Andoni Barreña, Ane Ortega 2008: *Hizkuntzak eta immigrazioa – Lenguas e inmigración*. Ikuspegi - UNESCO Etxea. Bilbo.
- Urteaga, Eguzki 2010: “Garapen iraunkorraren bilakaera historiko eta sortutako eztabaidak” *Jakin* 177-178: 19-32). Donostia.
- Xamar 2001: *Orekan: Herri eta Hizkuntzen ekologiak*. Pamiela. Iruñea.
- Zarraga, Arkaitz, Jean-Baptiste Coyos, Jone M. Hernandez, Lionel Joly, Imanol Larrea, Loren Martínez, Belen Uranga eta Paul Bilbao 2010: *Sozolinguitika Eskuliburua*. Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.

OHARRAK

1. Aipatu gabe ezin utzi bere garrantziagatik Rioko Adierazpena (1992) Kyotoko Protokoloa (1997) edo Nazio Batuen Erakundeak proposaturiko Milurtekoko Garapen Helburuak (2000).
2. Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Saileko web gunetik jasotako definizioa. http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-5832/eu/contenidos/informacion/desa_sostenible/eu_935/dsostenible_e.html. Azken irakurketa 2011/01/31.
3. Gaia hipotesia hipotesi ekologiko bat da, non biosfera eta Lurraren osagai fisikoez (atmosfera, hidrosfera eta litosfera) bateratuak agertzen diren, sistema elkarreragile konplexua eratuz. Horrela, Lurra egoera klimatiko eta biogeokimikoa homeostasian mantenduz. Internet http://eu.wikipedia.org/wiki/Gaia_hipotesia. Azken ikustea 2011-01-28.

4. Itzulpena gurea.

5. Hainbat eskola-lerrok bereizketa modu honetan egiten dute: hizkuntzen ekologia hizkuntzak ekosistema modura aztertzen dituen arloa eta ekolinguistika hizkuntzak berak naturarekin duen harremanaren azterketa. Sarrera honetan ez dugu, hautuz, halako bereizketarik egin.

6. Halliday 2001:199 Steffensen-ek aipatua.

7. Frantsesez niche (Calvet-et erabilitako terminoa) Coyos-ek zoko terminoarekin zabaldu duena.

8. Espezie eta hizkuntzaren arteko paralelismoen inguruko ideia oso interesgarriak Bastardas: 2003 artikuluan aurki daitezke.

9. Oso liburu interesgarria da esparru honetan honako hau: Nettle, Daniel, Suzanne Romaine 2000. *Vanishing Voices. The Extinction of the World's Languages*. New York: Oxford University Press.